

A-636ko 10 ezponda eta lubeta birgaitzeko lizitazioa onartu da



Aurrekontua 2.841.000 €+BEZ da, eta gauzatzeko epea 11 hilabetekoa da.

Bidegiko Administrazio Kontseiluak, urtarrilaren 26an egindako bileran, A-636 autobideko ezpondak eta lubetak birgaitzeko lanen lizitazioa onartu du. Aurrekontua 2.841.879 euros+BEZkoa da, eta, esleitu ondoren, 11 hilabeteko exekuzio-epea izango du.

A-636 errepideko ezpondak birgaitzeko proiektuaren helburua lur-jausien arriskuak ekiditea da, 8 ezpondatan eta 2 lubetetan esku-hartze zehatzak eginez. Jarduketa horietako sei N-I errepidearen Beasaingo lotunetik Irizar enpresaren parean dagoen Ormaiztegiko lotuneraino doan tarteari dagozkio. Zati hori da 1996an zerbitzuan jarri zen lehena. Beste bi esku-hartze Ezkio-Itsason egingo dira, eta gainerako biak Legazpin eta Antzuolan. Erreien noranzkoari dagokionez, sei birgaitze Beasainerako noranzkoan egingo dira, eta beste lau Bergararako noranzkoan.

Aurreikusitako jarduketak proiektuan jasota daude, eta ezponda eta lubeta bakoitzaren ezaugarrien arabera dira. Modu orokor gisa, sare malguak eta ainguratzeko sistematikoak instalatuz indartzea aurreikusten da. Hondatutako gunita ere berrituko da, proiektatutako hormigoizko geruza berrien bidez, eta horietako batean habe bertikalen eta horizontalen bilbadurak egingo dira. Ezpondak kontrolatzeari begira, hondatutako zelula hidroeletrikoen ordez zelula piezoeletrikoak jarriko dira, urruneko jarraipena egiteko. Ormaiztegiko bi hegaletan, Bergarako noranzkoan, betelanak egingo dira landare-lurzoruarekin, ezpondaren kanpoko aldearen eta sarearen artean, hidroereintza jasotzeko, ingurumena lehengoratzeko.



Gaitasun handiko eta erabat operatiboa den A-636 autobidean birgaitze-lanak egiteko Bidegik hainbat neurri aurreikusi ditu langileen segurtasuna bermatzeko eta gerta daitezkeen eraginak minimizatzeko. Horrela, asteburuetan lan egiteko aukera kontuan hartuko da. Arekak betetzeko egokitze-lan batzuk gaez egingo dira, eta erriak behar bezala seinaleztatuta eta babestuta egongo dira hormigoizko hesiekin. Azkenik, eta garraio berezien zirkulazioa errazte aldera, eragina jasango duen erreia mozteko denbora luzatu edo murriztu ahal izango da.

A-636 errepidearen azpiko pasabidea

Era berean, Kontseiluak, Ormaiztegiko 4,500 kp-an dagoen A-636 errepidearen azpiko pasabidearen egitura indartzeko obren exekuzioa berretsi du, 278.400 €+BEZarekin eta hiru hilabeteko egikaritze-epearekin. Errefortzua hormigoi armatuzko egitura berri baten bidez egingo da, dagoena barneratuta. Ganga-formako pasabideak 50 metroko luzera du. Hasieran, drainatze-obra gisa sortu zen, baina gaur egun oinezkoen eta ibilgailuen erabilerarako azpiko pasabide gisa funtzionatzen du, 4 metroko zabalera eta hormigoizko zorua baititu.

Zarautz, 2024-01-26

Licitada la rehabilitación de 10 taludes y terraplenes de la A-636



El presupuesto es de 2.841.000 €+IVA con un plazo de ejecución de 11 meses

El Consejo de Administración de Bidegi celebrado este viernes 26 de enero, ha acordado sacar a licitación la obras para rehabilitar varios taludes y terraplenes de la autovía A-636. El presupuesto es de 2.841.879 euros+IVA con un plazo de ejecución, tras su adjudicación, de 11 meses.

El proyecto de rehabilitación de taludes en la A-636 tiene como objetivo mitigar riesgos de desprendimientos con intervenciones concretas en 8 taludes y 2 terraplenes. Seis de las actuaciones corresponden al tramo que va desde el enlace de la N-I en Beasain hasta el enlace de Ormaiztegi a la altura de la empresa Irizar. Este tramo es el primero que entró en servicio en 1996. Otras dos intervenciones se ejecutarán en Ezkio-Itsaso y las dos restantes en Legazpi y Antzuola. En cuanto al sentido de los carriles seis rehabilitaciones se ejecutarán en dirección Beasain y otras cuatro en sentido Bergara.

Las actuaciones previstas están recogidas en el proyecto y dependen de las características que presenta cada talud y terraplén. Como norma general se prevé su refuerzo con la instalación de mallas flexibles y anclajes sistemáticos. También se renovará la gunita deteriorada por medio de nuevas capas de hormigón proyectado y en uno de ellos se ejecutarán entramados de vigas verticales y horizontales. De cara al control de los taludes se sustituirán las células hidroeléctricas deterioradas por células piezoeléctricas que permitirán un seguimiento en remoto. En dos de las laderas,



ubicadas en Ormaiztegi, sentido Bergara, se harán trabajos de relleno con suelo vegetal entre la cara externa del talud y la malla para recibir la hidrosiembra que permitirá su recuperación medioambiental.

A fin de garantizar la seguridad de los operarios y minimizar las afecciones que puedan darse a la hora de ejecutar las obras de rehabilitación en una vía de gran capacidad y plenamente operativa como es la A-636, Bidegi ha previsto una serie de medidas. Así, se tendrá en cuenta la opción de trabajar los fines de semana. Algunos trabajos de acondicionamiento como relleno de cunetas se ejecutarán en horario nocturno y los cortes de carril estarán debidamente señalizados y protegidos con berreras de hormigón. Por último y de cara a facilitar el tránsito de los transportes especiales se podrá ampliar o reducir los tiempos de corte del carril que se vea afectado.

Paso inferior de la A-636

El Consejo también ha ratificado la ejecución de las obras de refuerzo de la estructura del paso inferior de la A-636 ubicada en el pk 4,500 de Ormaiztegi por un importe de 278.400 €+IVA y un plazo de ejecución de tres meses. El refuerzo se realizará mediante una nueva estructura de hormigón armado intradosando la existente. El paso, con forma abovedada, tiene una longitud de 50 metros. Inicialmente fue concebida como una obra de drenaje, pero actualmente funciona como paso inferior de uso peatonal y rodado al presentar una anchura de 4 metros y un firme de hormigón.

Zarautz, 2024-01-26